

Australia: Asiako sheriffak zerbait ezkututzen du

Albiste susmagarriak iritsi ziren berrikitan Australiatik: aborigen jendeen artean hurrei sexu gehiegikeriak erruz egiten zaizkiela jakin eta agintariak neurriak hartzen ari omen direla. Albiste horren sustraian dagoen kolonialismo istorio iluna argitu nahi izan du John Pilgerrek.

JOHN PILGER IZENEZ SINATUA BADA, ziur artikulua borrokalaria irakurriko duzula. 68 urteko kazetari australiar honi etsaiek, eta asko ditu, iseka egiteko diote esanez bere artikulua "pilgerkeriaz" beteta daudela: ingelesez "to pilger" eta "pilgerise" aditzak asmatu dizkiote, muturrera botatzeko.

The Guardian egunkarian eta *The New Statesman* astekarian idatzi dituen artikulua eta erreportaje ugari ez gain, film dokumental sorta dauka egina, DVD formatuan eros daitekeena. Azkenak, *War on Democracy*, Estatu Batuek mende erdi honetan Latinoamerikako gobernuak desestabilizatu eta uzkailezko antolatutako operazioak kontatzen ditu, Hugo Chavezek 2002an jasan zuen estatu kolpea barne. Dozena bat libururen egile ere bada.

Pilger gerrako kazetari izana da Vietnamen, Kanbodian, Biafran, Bangladeshen, Ekialdeko Timorren... Irak inbaditzea erabaki zutenetik, erruki gabe eraso die George Bushi eta Tony Blairri. Baina duela aste gutxi bere sortetiaz jardun du Pilgerrek, Australiaz, paradisu lasai itxura salduz Asia eta Pazifikoko botere inperialista moduan ari dela salatzeke: *Australia's hidden Empire* (Australiaren inperio ezkutua).

"Kanpokoek Australia aipatzen dutenean -idatzi du Pilgerrek- halako xalotasun batekin ari ohi dira: crickets, kanguruak jauzika, eguzki amaigabea, arrangurarik eza... (...) Australiak bere

inperioa kudeatzen duela ezin da aipatu ere egin. Baina inperioa hasten da Sidneyko txabolategi indigenaz betetakoetatik, segi kontinenteko aspaldiko hinterlandetik eta Arafurako itsasotik barrena Hego Pazifikoraino heltzen". Txabolategietan bizi diren indigenak? Baina Kevin Rudd lehen ministroak otsail honetan eskatu die eta barkamena azken mende erdian egindako gehiegikeriengatik... Barkamen eskari hori mozorroa baizik ez omen da izan.

Australia fundatu zenetik zanzpatu dira indigenak, Pilgerrek dio. Lurra ostu eta jende asko lekualdatu zuten australiar berriek, antzinatek bertan zeudenak txirotasunean utziz edo anikilatuz. Orain sentimentalismozko tsunamiak eraginda barkamena eskatu zaie, baina egoera asko hobetu gabe.

Utopia izen polita daraman eskualdean bezala, leku askotan indigenak bizi dira osasun zerbitzurik gabe, iturriko urik gabeko etxeetan, zabor bilketarik gabe, eraikin zarpailetan. Australia aberatsa lehen munduko estatua den arren, lehenengo biztanleek gastroenteritis eta sukar erreumatikoa bezalako eritasunak nozitzen dituzte. Indigenen haurrak oraindik itsutzen ari dira Trakoma gaitzagatik. Sri Lanka atzeratuan menderatu dute gaixotasun hau, baina Australian ez.

Marjinazioan bizi diren herritarrotako askok beren etsipenean suizidiora jotzen duten bitartean, gehiengo zuria-

Iragarki hau ipini du Australiako Gobernuak Northern Territory estatuko eskualde bateko sarreran. Pano horretatik aurrerako lurretan alkohola edukitzea 1.000 dolarrekin zigortzen da, eta beste norbaiti eman edo saltzea 74.000 dolar eta 18 hilabeteko kartzelaldiarekin. Pornografia aurkitzen zaionak 5.500 edo 11.500 dolarreko isuna pagatu beharko du, eta beste norbaiti pasatzen dionak 22.000 dolar eta bi urteko espetxe zigorra. Eskualde honetan indigenen artean alkoholismoa eta haurrenganako sexu gehiegikeriak orokortuta daudela zabaldu zelarik, emergentziarako eremu deklaratu zuen Camberrako gobernuak. Argazkia PARIAN (People Against Racism In Aboriginal Homeland) herri mugimenduak erakutsi du bere webgunean, salatzeke otsailean barkamen eske famatua egin arren Australiak arrazista izaten segitzen duela.

ren artean eztabaidatzen da ea ondo ote dagoen Estatuak hainbeste diru alferrik gastatzea itxuraz konponbiderik ez daukaten salbaiok bideratzeko.

Indigenek, gainera, azken aldian lotsakizun berri bati egin behar izan diote aurre. 2006an *ABC* telebistak *Lateline* programan salatu zuen Mutitjulu eskualdean hurrek sexu esklabutza eta gehiegikeriak nozitzen dituztela. Nahiz eta akusazio larriok iturri anonimo batean oinarrituta egon, eta lekuko agintariek albistea gezurtatu arren, telebistak ez zuen atzera egin. Alarma zabaldu zen Australia osoan eta John Howard orduan lehen ministro zenak poliziak eta soldaduak bidali zituen Northern Territory estatuko paraje urrun haietara.

Geroago ikerketa egin zen, gertatutako kasuen eta antolatu den emergentziaren artean proportziorik ez zegoela erakutsi zen... baina armadak eta poliziak han segitzen dute, eta australiar indigenak berrogeialdian.

Basatiok ez dira jabetzen

Northern Territoryn gertatzen ari denak badu Pilgerrentzako beste esplikazio bat. Duela 30 urte antzina hango lurra berreskuratu zituzten hango lehenengo biztanleek, kasik txiripaz, eta urteak pasa ahala konpainia handiak ohartu dira jende basa haien oinpean alferrik galtzen ari direla munduan karu pagatzen diren mineralak.



AEBetako Halliburton famatuaren adarra den Kellogg Brown & Root konpainiak Darwin-etik Adelaide-ra trenbidea eraiki zuen, eta horren aldamenean datza munduko uranium meategirik inportanteenetakoa, Olympic Dam deritzona. Handik ez oso urrun, gobernuak Tennat Creek eskualdea ere kendu die indigenei, mundu osoko zentral nuklearretako hondakin nuklearrak han lurperatzeko. Helen Caldicott zientzialariaren hitzetan “aborigenei lurra kentzeak ez du deus ikustekorik haurrei egindako balizko sexu gehiegikeriekin, eta aldiz bai Northern Territoryn uranio meategiak ireki eta han biltegi nuklearra antolatzearekin”.

Baina Australia bere inguruetan ere ari da potentzia inperialista moduan

jokatzen. Ekialdeko Timorreko urpean, adibidez, munduko gas eta petrolio hobirik handienetakoa dago. Horrek esplikatzen du zergatik izan zen Australia Indonesiako Suharto jeneralak Ekialdeko Timor okupatzea onartu zuen estatu bakarretakoa. Eta zergatik saiatu zen, indonesiarrek 200.000 pertsona hil ondoren Timorrek independentzia alkantzatu zuenean, itsasoko mugak aldatzen, petrolio eta gasa bereganatu nahian. Beharrik nazioarteko auzitegietan galdu zuela.

Baina Australiak etengabe sartzen du eskua Ekialdeko Timorren, John Pilgerrek dioenez. Xanana Gusmão eta José Ramos-Horta Australiako *establishment*aren gustukoak direnez, australiarrek ahaleginak egin zituzten Mari Alkatiri lehen ministroa kargutik

kentzeko, hau nazionalistegia eta are “komunista” zelakoan. Azkenik, lortu zuten soldadu matxino batzuek 2006an hura kentzea. Alegia, Bush saiatu zen moduan Chavez hondoratzeko, berdintsu egin zuela Howardek Alkatirirekin, honek arrakastaz.

Beranduago, komunikabide batzuek heroi moduan aurkeztu zuten matxinoetako batek, Alfredo Reinaldok, jo zuen kolpea Ramos-Horta eta Gusmãoen kontra. Tipoa hiltzaile arriskutsua izaki. Orain Ekialdeko Timor bankarrotan edo faillitan dauden estatuen artean kontatzen da eta bertako haurren ia erdia goserik dago, beren hankapean aberastasun handiak datzaten arren. Eta soldadu australiarrek bermatzen dute bakea.

Solomon uharteetan eta Papua-Ginea Berrian ere Australiak bere soldaduak dauzka bake lanetan. Pilgerrek inteligentziako ofizial bati entzun zionez “gizarte basati horietan esku hartzea erreminta trakets bat bezalakoa da, latza baina beharrezkoa”.

Eta gainera, Australiako militarrek ari dira Afganistanen eta Iraken. Kevin Rudd lehen ministro laboristak agindu zuen soldaduak Iraketik aterako dituztela, baina erdiak han utziko ditu. Australiarrak AEBen soziorik hurbilekoenak dira Asia urrunean. Kulturaz ere antzekoenak. Orain beren estatusa sendotu nahi dute. “Heldu da guk munduaren teilatu gainetik kantatzeko ordua” esan du Kevin Ruddek erreto-liko harroan. Horra nola mintzatu den Asiarako izendatutako *sheriff* berria. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Konfiantza delako garrantzitsuena

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, etengabe produktu berriak eta zerbitzu berriak bilatzearen bidez.

ZINKUNEGI OPTIKA

Herrani kalea - 28004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 624

G A R A N T I A